

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO UDALA

**Udalbatzaren 2022ko uztailaren 28ko erabakiaren bidez, onestea Lanpostuen Zerrendaren aldaketa, Añanako Udaleko administrari laguntzailearen lanpostuari dagokionez**

Udalbatzak, 2022ko uztailaren 28an egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea administrari laguntzaile plaza administrari plaza bihurtzeko espedienteari.

Bigarrena. Hasierako onespena ematea honako ezaugarri hauek dituen administrari plaza sortzeari: ordainketa maila: Udalhitzen eranskinetako 14a; lanaldia: osoa; hizkuntza eskakizuna: 2; lantokia: udaletxea.

Espediente hori jendaurrean egongo da hamabost egun baliodun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzakete. Erabakiaren aurka erreklamaziorik egon ezean, eta espedientea jendaurrean egoteko epea igaro ondoren, erabakia behin betikoa izango da.

Gesaltza Añana, 2022ko irailaren 15a

*Alkatea*

*JUAN CARLOS MEDINA MARTÍNEZ*